

**HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA**

**Jarduera Fisikoa eta Kirol Zientzien Gradua**

2020-2021 Ikasturtea

**Gimnasia Erritmikoko errutinen azterketa lehiaketan:  
behaketa tresna berri baten proposamena**

EGILEA: Iglesias Torres, Eider

ZUZENDARIA: Los Arcos Larumbe, Asier

2021eko maiatzak 20

## **Aurkibidea**

Laburpena.....	4
1. Sarrera .....	5
2. Metodoa.....	9
2.1. <i>Parte-hartzaileak</i> .....	9
2.2. <i>Kodifikazio Tresna</i> .....	9
2.3. <i>Erregistro eta analisi tresna.</i> .....	23
2.4. <i>Prozesua</i> .....	23
3. Emaitzak.....	24
4. Ondorioak.....	25
5. Erreferentziak.....	26

## Taulen aurkibidea

Taula 1: GimRit behaketa tresnaren 1 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	11
Taula 2: GimRit behaketa tresnaren 2 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	12
Taula 3: GimRit behaketa tresnaren 3 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	13
Taula 4: GimRit behaketa tresnaren 4 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	13
Taula 5: GimRit behaketa tresnaren 5 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	15
Taula 6: GimRit behaketa tresnaren 6 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	16
Taula 7: GimRit behaketa tresnaren 7 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	16
Taula 8: GimRit behaketa tresnaren 8 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	16
Taula 9: GimRit behaketa tresnaren 9 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	17
Taula 10: GimRit behaketa tresnaren 10 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	18
Taula 11: GimRit behaketa tresnaren 11 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	18
Taula 12: GimRit behaketa tresnaren 12 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	18
Taula 13: GimRit behaketa tresnaren 13 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	19
Taula 14: GimRit behaketa tresnaren 14 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	19
Taula 15: GimRit behaketa tresnaren 15 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	20
Taula 16: GimRit behaketa tresnaren 16 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	20
Taula 17: GimRit behaketa tresnaren 17 Irizpidea eta bere kategoriak. ....	23
Taula 18: GimRit behaketa tresnaren behatzaile bereko akordio-maila. ....	24
Taula 19: GimRit behaketa tresnaren behatzaile arteko akordio-maila. ....	25

## Laburpena

Gimnasia Erritmikoko (GE) arautegiaren etengabeko aldaketek errutinen azterketa konstantea eskatzen dute. GEko errutinak gorputz zailtasunetara eta eduki artistikora mugatzen ez direnez, hauek bere osotasunean aztertzeko beste hainbat osagai kontuan hartu beharko lirateke (e.g. elementuak burutzeko ordena edo hauen arteko loturak). Gainera, elementu bakoitzaren azterketa sakonak (e.g. azterketa anatomikoak eta biomekanikoak) gimnasten errutinak zehaztasun handiagoarekin aztertzeko eta alderatzeko aukera eskainiko luke. Arautegiko Puntuazio Kodeak espazioaren (i.e. tapizaren) erabilpena nola izan behar duen (e.g. tapiz osoa erabili behar da) eta elementuak denbora tarte zehatz batean burutu behar diren zehazten duenez, errutinen azterketek espazioaren erabilpena eta denboraren kudeaketa kontuan hartu beharko lukete. Beraz, lanaren helburua GEko banakako modalitateko *manos libres* errutinak aztertzeko lau parametrotan (i.e. anatomiko, biomekaniko, denborazko eta espazial) oinarritutako behaketa tresna berri baten fidagarritasuna aztertzea izan zen.

*Ad hoc* sortutako GimRit behaketa tresnak 4 parametro kontuan hartu zituen: anatomikoa, biomekanikoa, denborazkoa eta espaziala. Guztira 17 irizpide eta 163 kategoria desberdindu ziren. Behaketa tresnaren fidagarritasuna aztertzeko 2020ko GEko txapelketa internazionalen *manos libres* modalitateko errutina bat kodifikatu eta behatzaile beraren eta behatzaileen arteko komunztadura aztertu zen. Orotara, errutina osoan 33 elementu identifikatu eta behaketa tresna osatzen zuten 17 irizpide nagusietatik abiatuta aztertu izan ziren. Behatzaile beraren arteko bataz besteko akordio maila 0,99koa, irizpidearen arabera 0,91-1,00 bitartekoa, izan zen (Taula 18). Behatzaileen arteko bataz besteko akordio maila 0,92koa, irizpidearen arabera 0,81-1,00 bitartekoa, izan zen (Taula 19).

Aurretik egindako lanekin alderatuz, “*ad hoc*” diseinatutako GimRit behaketa tresnak GEko banakako modalitateko *manos libres* errutinak bere osotasunean kontuan hartzeko, elementu guztien mugimenduak xehetasunez aztertzeko eta hauek espazioan eta denboran kokatzeko aukera eman eta modu fidagarrian behatzeko aukera ematen du.

Hitz Gakoak: Gimnasia, Lehiaketa, Behaketa Metodologia, GimRit, Fidagarritasuna.

## 1. Sarrera

Gimnasia erritmikoa (GE), beste kirolak bezala, instituzionalizatutako arau sistema baten bitartez erregulatuta dago (Martínez-Santos, Founaud, Aracama, eta Oiarbide, 2020). Zehazki, arau *ontikoez* gain, jardueraren aurreko elementuak zehazten dituztenak (e.g. gimnasten jantziak material ez-gardenekoa izan behar du eta tapizak 13x13 metroko neurria izan behar du), akzio gimnastikoa arau *teknikoen* bidez araututa dago (Martínez-Santos, 2018). Beste konkurtso akrobatikoetan bezala (e.g. gimnasia akrobatikoa, eta tranpolin jauziak) (Martínez-Santos, 2018), akzioa bideratzen duten arau hauek beharrezko baldintza jakin batzuk eskatzen dituzte akzioa kalifikagarria izan dadin eta, beraz, joko-akzioa izan dadin (Martínez-Santos, 2018). Arauek ezarritako prozedurak errespetatzen ez direnean, baliogabetze-printzipioa aplikatzen da; zehazki, beste lehiaketa akrobatikoetan bezala, baliogabetze partziala (Martínez-Santos, 2018). Adibidez, gimnastaren aparatua erori arren, tapizetik ez ateratzeak eta gimnastak ordeko aparatua erabiltzeak 0,50 puntuko baliogabetzea suposatzen du aparatua baimenik gabe erabiltzeagatik. Arautegiko *Puntuazio Kodearen* 2.1.2.1. artikuluan adierazten den bezala, epaileen Exekuzio Panelaren -ebaluatzeaz arduratzen den epaile taldea- barruan bi azpimultzo bereizten dira: akats artistikoak ebaluatzen duena eta akats teknikoez arduratzen dena.

Harreman motorrei dagokionez (Parlebas, 2013; Parlebas 2020), GEko txapelketa ofizialetan errutina psikomotorrak (i.e. 1 vs 0) eta laguntasun hutsezkoak (i.e. 5 vs 0) aurki daitezke (Arautegiko *Puntuazio Kodearen* 1. artikulua). Areriotasuneko elkarrekintzarik (i.e. kontra-komunikaziorik) (Parlebas, 2013) ematen ez denez, entrenatzailea kideak sortzen duen ziurgabetasuna entrenamenduaren bidez ahalik eta gehien gutxitzen saia daiteke, entrenamenduaren helburu nagusia ez bada, nagusietariko bat izanik. Gainera, Parlebas-ek dioenez (2013), espazioa (i.e. tapiza) estandarizatu denez, hau da, ziurra denez, akzio motorra automatismora bideratzen da. Espazioak ziurgabetasunik (i.e. informazioa faltarik) sortarazten ez duenez eta kideak, egotekotan, sortaraz dezakeen ziurgabetasuna entrenamenduaren bitartez murrizteaz denez, gimnasten erabaki hartzea ez da lehiaketan beharrezkoa. Burutu beharrezkoa jardun aurretik programatuta dago eta entrenamendua honen errepikapenean oinarritzen da. Ondorioz, mugimendu-sekuentziek trebetasun harrigarria edo aparteko ausardia sortzen dute eta hauek denbora luzez programatutako sekuentzietan oinarritzen dira (Parlebas, 2013).

Epaile adituak gimnastek lehiaketan burututakoa, hau da, errutina osoa, ebaluatzeko Arautegiko Puntuazio Kodean oinarritzen dira. GEko epaileek aldi berean ematen diren bi parametro kontuan hartu behar dituzte gimnastak burututako errutina lehiaketan ebaluatzeko: elementu kantitatea eta kalitatea. Alde batetik, zailtasuneko-epaimahaia Arautegiko Puntuazio Kodean zehaztutako elementu teknikoei dagokien puntuazioa emateaz arduratzen da. Epaileek elementu bakoitza sailkatu eta Arautegiko Puntuazio Kodearen arabera bere zailtasun-maila ebaluatu eta errutina guztiaren erregistro kuantitatiboa eman behar dute (Díaz-Pereira, Gómez-Conde, Escalona, eta Olivieri, 2014). Bestetik, exekuzio-epaimahaiak burututako elementu mota bakoitza Arautegiko Puntuazio Kodeak zehazten dituen kalitate-estandarrekin alderatzen eta ebaluatzen ditu. Elementuaren exekuzioa modelo perfektutik aldentzen bada, akatsaren larritasunaren arabera, hasierako puntuazioari ezartzen zaion balio gabetze partziala txikiagoa edo handiagoa izango da (Díaz-Pereira et al., 2014). Ondoren, errutina guztien azken puntuazioa kalkulatu da, bi puntuazioen balioak batuz.

GEko gimnasten ebaluazioa subjektiboa denez (Martínez-Santos, 2018), zenbait lanek subjektibotasuna baldintza ditzaketen faktoreen inpaktua aztertu dute. Díaz-Pereira et al.-ek (2014) diotenez, ebaluazio-irizpideen zehaztasunik ezak, errutinen lastertasunak eta iraupen iragankorrak, epaileen-pertzepzio mugek eta testuinguruarekin lotutako faktoreek (e.g. gauzatze-ordena edo beste epaileen presioa) GEko ebaluazio prozesua baldintzatzen dute. Era berean, gimnastaren jantziaren koloreak, inguruko jendeak, zaratak eta errutina behatzeko angelu desegokiek epaileen distrakzioa eragin dezakete (Van Bokhorst et al., 2016). Gainera, gimnastaren emozioen adierazpenak epaileen ebaluazioa baldintza dezake (Van Bokhorst et al., 2016). Adibidez, gimnastaren haserreak akats bat eman dela ohartarazi dezake. Bestalde, gimnasten errendimendu-mailak ebaluazioaren zehaztasuna baldintzatzen omen du. Epaileen ebaluazioa 2013ko Kiev-eko Munduko Txapelketan sailkapeneko aurreneko eta amaierako postuak lortu zituzten gimnastentzako, beste gimnastekin alderatuz, sendoagoa izan zen (Leandro, Ávila-Carvalho, Bobo-Arce, eta Sierra-Palmeiro, 2017). Nahiz eta faktore askok epaileen ebaluazioa baldintzatu (Díaz-Pereira et al., 2014; Van Bokhorst et al., 2016; Leandro et al., 2017) eta parametro estetikoak, artistikoak eta teknikoak aldi berean hautemateko adimen-gaitasun handia behar, Fernández-Villarino, Bobo-Arce eta Sierra Palmeiro-k (2013), zenbait lanek GEko epaileen ebaluazio subjektiboa fidagarria eta baliozkoa dela erakutsi dute (Leandro et al., 2017; Fernández-Villarino et al., 2013).

GEko errutinak osatzen dituzten elementuak aztertzeke asmoz, zenbait ikerketetan banaka zein taldeka burututako errutinak deskribatzeko, aztertzeke eta alderatzeko behaketa tresna ezberdinak diseinatu izan dira (Díaz, Martínez eta Vernetta, 2004; Sierra-Palmeiro, Bobo-Arce, Pérez-Ferreirós eta Fernández-Villarino, 2019; Agopyan, 2014; Ávila-Carvalho, Lebre, eta Palomero-Ródenas, 2011; Ávila-Carvalho, Klentrou eta Lebre, 2012). Banakako modalitateko errutinak aztertzeke, Sierra-Palmeiro et al.-ek (2019) GEko banakako modalitateko 416 errutina aztertu zituzten. Zehazki, munduko azken 13 txapelketetako aparatu bakoitzaren (i.e. pilota [96], soka [40], uztai [96], zingola [88], eta mazoak [96]) azken txandan burututako errutinak. Errutina aztertzeke, aparatu bakoitzean egindako elementu tekniko kopurua eta bukaerako nota kontuan hartu zituen behaketa tresna erabili zuten. Oro har, Arautegiko Puntuazio Kode aldaketak gimnastek lortutako azken puntuazioan eragin negatiboa izan zuela aurkitu zuten. Gainera, Kode aldaketak aparatu mota bakoitzean eragin espezifikoa izan zituen, gimnastek burututako elementu-kopurua eta honek azken puntuazioarekin duen harremana baldintzatuz. Bestalde, Agopyan-ek (2014), 2009-2012ko Arautegiko Puntuazio Kodean oinarrituz, Londreseko 2012ko Joko Olinpikoetako banakako eliteko GEko gimnasten gorputz zailtasunak aztertu zituen. Txapelketaren azken lehiaketetako aparatu bakoitzeko (i.e. uztai, pilota, mazoak eta zinta) 10 errutina kontuan hartu zituen. Errutinetan gorputz-zailtasun talde bakoitzetik (i.e. jauziak, birak, orekak eta malgutasun-elementuak/uhinak) egindako elementu kopurua aztertu zuen. GEko eliteko gimnastek, 2012ko Joko Olinpikoetako errutina ezberdinetan, zailtasun zehatz batzuk beste batzuk baino gehiagotan aukeratu zituztela aurkitu zuen. Gainera, gimnastek, jauzi, oreka, bira eta malgutasun/uhin elementu-kalitate berdina erabili zuten (Agopyan, 2014).

Taldeko errutinei dagokionez, Ávila-Carvalho et al.-ek (2011) Portimãoko Gimnasia Erritmikoko 2007 eta 2008ko Munduko Kopan parte hartu zuten senior taldeen lehiaketa-errutinen konposizio artistikoa aztertu zuten. Talde bakoitzak bi errutina burutu zituen; lehenengoa 5 sokekin, eta bigarrena 3 uztai eta 4 mazoekin. Egindako bi errutinetan jaurtiketak eta jaurtiketarik gabeko lankidetzak gehien erabili ziren elementuak izan ziren (Ávila-Carvalho et al, 2011). Sokari zegokionez, sokaren barruko jauziak, ihesaldiak eta maneiak izan ziren errutinen konposizioan gehien erabili ziren elementuak. Uztaiari zegokionez, gehien erabili zirenak maneiak izan ziren, eta mazoei zegokionez, errotak izan ziren gehien erabili ziren elementu teknikoak. Bestetik, Ávila-Carvalho et. al.-ek (2012), 2007-2010eko Portimão World Cup-en 28 herrialdeko 126

talde-errutinen aparatuaeren zailtasun profila aztertu ondoren, entrenamendu-bolumen (%43) eta jaurtiketen (%6) eta arriskuko lankidetzen (%16,5) erabilera handiagoek errendimendu handiagoa lortzea ahalbidetzen omen zuela aurkitu zuten.

Aurreko ikerketek errutinak aztertzeko Arautegiko Puntuazio Kodea hartu eta elementuen zailtasuna soilik aztertu izan dute, Arautegiko Puntuazio Kodean urteetan zehar izandako aldaketak kontuan hartu gabe (Sierra-Palmeiro et al., 2019). Gainera, eduki artistikoan edo gorputzaren mugimenduen zailtasunean soilik jarri dute arreta, elementuen ezaugarrietan gehiegi sakondu gabe. Azterlan honetan aurkitutako emaitzek, GEaren etengabeko bilakaera azkarra nabarmendu, eta antzeko lanak etengabe burutu behar direla azpimarratu dute (Sierra-Palmeiro et al., 2019). GEko errutinak gorputz zailtasunetara eta eduki artistikora mugatzen ez direnez, hauek bere osotasunean aztertzeko beste hainbat osagai kontuan hartu beharko liriateke (e.g. elementuak espazioan non burutzen diren, elementuen gauzate ordena, elementuen arteko loturak...). Gainera, elementu bakoitzaren azterketa sakonak (e.g. azterketa anatomikoak eta biomekanikoak) gimnasten errutinak zehaztasun handiagoarekin aztertzeko eta alderatzeko aukera eskainiko luke. Nahiz eta Arautegiko Puntuazio Kodeak espazioren (i.e. tapizaren) erabilpena nola izan behar duen zehaztu (e.g. tapiz osoa erabili behar da), orain arte elementuak non burutu diren ez da aztertu (Sierra-Palmeiro et al., 2019; Agopyan, 2014; Ávila-Carvalho et al., 2011; Ávila-Carvalho et al., 2012). Tapiza zenbait zonetan banatzeak eta elementu bakoitza zer zonan burutu den zehazteak gimnasta bakoitzak espazioa aprobetxatzeko erabiltzen duen estrategia ezagutzeko aukera eta erabilpen horrek bukaerako puntuazioan zer eragina duen aztertzeko aukera emango luke. Arautegiko Puntuazio Kodeak errutinaren iraupen minimoa eta gehiegizkoaren balio gabetzeak ezartzen dituzenez eta elementu bakoitza burutzeko uneak eta hauen segidetak epaileen ebaluazio subjektiboan eragin dezaketenez, denboraren kudeaketaren azterketak behaketaren sakontasun maila handituko luke.

Beraz, lanaren helburua Gimnasia Erritmikoko banakako modalitateko *manos libres* errutinak aztertzeko lau parametrotan (i.e. anatomiko, biomekaniko, denborazko eta espazial) oinarritutako behaketa tresna berri baten fidagarritasuna aztertzeko izan zen.



## 2. Metodoa

### 2.1. Parte-hartzaileak

Bi behatzailek hartu zuten parte azterketa ikerkuntzan, 2020an egindako Gimnasia Erritmikoko txapelketa internazionalen *manos libres* modalitateko errutina bat kodifikatuz. Zehazki, datuaren kalitatearen ebaluaketa egiteko eta behaketa tresnaren baliozkotasuna aztertzeko “Stars 2020” txapelketa internazionalako Adele Antipina gimnastaren bideoa erabili zen. Hau *Youtube* plataforman libre eskuratu izanenez (<https://www.youtube.com/watch?v=e97UzDvfox8&t=2s>) eta parte-hartzailearen datu pertsonalak behar ez zirenez ez zen gimnastaren baimen informatua eskatu beharrik izan.

### 2.2. Kodifikazio Tresna

Gimnasia erritmikoko errutina aztertzeko behaketa tresna balioztatzekeo gimnasta bakar baten ariketa behatu zenez, azterketak une zehatz bat kontuan hartu zuenez eta zenbait dimentsio edo irizpide aztertu zirenez, behaketa tresna *ideografikoa*, *puntual* eta *multidimentsionala* izan zen (Anguera, Blanco, Hernández. Antonio, eta Losada, 2011). *Ad hoc* diseinatutako behaketa tresna kategoria sistemak eta formatuen esparruak konbinatuz diseinatu zen (Anguera et al., 2011). Formatuen esparrua 17 irizpidez eta 163 kategoriaz osaturik zegoen, irizpide bakoitzeko kategoria sistema bat eratuz. Kategoria sistemak guztiak osoak eta elkar baztertzailak ziren (Anguera, Magnusson, eta Jonsson, 2007). Horrela, aztertu nahi izan ziren hauta guztiak biltzeko aukera izan zen, kategoria bakoitzak bere esanahia eta besteekiko ezberdina izanik, eta hauta bera ezin izan zen bi kategoriatan aldi berean kodifikatu.

Arautegiko Puntuazio Kodearen irizpidez gain (Fédération Internationale de Gymnastique, 2018), behaketa tresna sortzeko barne logikaren parametroak edo ardatzak aintzat hartu ziren (Parlebas, 2001). Aztertutako jarduera bakarkakoa zenez eta gimnastak aparatutik erabili ez zuenez (i.e. *manos libres*), besteekin eta materialarekin izandako harremanak ez ziren kontuan hartu. Beraz, akzio motorraren lau ardatzetatik, bi kontuan hartu ziren: a) denborarekin izandako harremana eta b) espazioarekin izandako harremana (Parlebas, 2013).

Denborarekin izandako harremanari dagokionez, errutinaren iraupen osoa erregistratzeaz gain, Arautegiko Puntuazio Kodeak zehazten duen (1.2.2. artikulua), eta baliogabetzerik suposatzen ez duen errutinaren iraupen maximoa hiru alditan banatu zen: a) errutinaren hasiera aldia: 0:00-0:30 min; errutinaren tarteko aldia: 0:30 - 1:00 min eta errutinaren bukaera aldia 1:00 - 1:30 min.

Espazioarekin harremana aztertzeke hurrengo irizpide nagusiak bereizi ziren:

- a) *Irizpide kartografiakoa*: elementu gimnastikoa burutzean gimnastak tapizean hartzen duen lekua.
- b) *Desplazamenduaren orientazio irizpidea*: leku hartze horrek tapizean desplazamendurik suposatzen duen edo ez, eta egonez gero, honen norabidea.
- c) *Irizpide biomekanikoa*: elementu gimnastikoaren azterketa biomekanikoa.
- d) *Aldiak irizpidea*: elementu gimnastikoak espazioaren erabilpena aldizka ematea suposatzen duen edo ez.
- e) *Giza anatomia irizpidea*: elementu gimnastikoa zer gorputz atalaren bitartez egiten den.
- f) *Irizpide estetikoa*: espazioa zer formaren bitartez betetzen den.

### 2.2.1. Arautegiko Puntuazio Kodean oinarritutako irizpideak

Lehendabiziko bi irizpideak *Arautegiko Puntuazio Kodean* oinarritu ziren. Lehenengo irizpideak (Taula 1) gimnastak gauzatutako elementuak (i.e. identifikagarria den portaera motorra) puntuazio kodearen arabera baliorik duen azertu zuen. Arautegiko Puntuazio Kodeak jauziak, birak, orekak eta pausu musikalak Puntuagarriak bezala sailkatzen ditu (1.4. artikulua), elementu bakoitzari puntuazio bat esleituz. Behaketa tresna aparataturik erabiltzen ez zuten gimnasten errutinak aztertzeke diseinatu zenez, behaketa tresnak ez zituen Arautegiko Puntuazio Kodearen arabera Puntuagarriak diren Errotaziozko-elementu Dinamikoak eta Aparatu-zailtasunak kontuan hartu. Gimnastak burututako gainerako elementuak (i.e. loturak, akrobaziak, ...) elementu Ez Puntuagarri bezala sailkatu ziren.

**Taula 1: GimRit behaketa tresnaren 1 Irizpidea eta bere kategoriak.**

Irizpidea	Kategoria	Azpi-Kategoria	Azpi-Azpi-Kategoria	Kodea	
Gimnastak burututako elementuaren balioa (BA).	<i>Puntuagarria:</i> Arautegiko Puntuazio Kodeak sailkatzen duen eta puntuazioa esleitzen dion elementua (PUN).	Jauzia: Zoruarekin kontaktua izatetik kontaktua galtzerako mugimendua (JAU). <sup>1</sup>	Zoruarekin kontaktua galtzea oin bakarrarekin egiten du (BAT)	BAPUNJAUBAT	
			Zoruarekin kontaktua galtzea bi oinekin egiten du (BI)	BAPUNJAUBI	
			Oinaren gainean <i>relevé</i> -an burututako errotazioa (RE)	BAPUNBIRARE	
		Bira: Gorputz atal baten inguruan burututako errotazioa. (BIRA). <sup>2</sup>	Oina lau dagoela honen gainean burututako errotazioa (LAU)	Beste gorputz atalen gainean burututako errotazioa (BES)	BAPUNBIRALAU
				Oinaren gainean <i>relevé</i> -an burututako oreka (RE)	BAPUNBIRABES
		Oreka: Gorputz baten mugiezintasun egoera, grabitatearen eraginpean baino ez dagoena, eta oinarrian edo sostengu-puntuari atsedenean dagoena (ORE). <sup>3</sup>	Oina lau dagoela honen gainean burututako oreka (LAU)	Beste gorputz atalen gainean burututako oreka (BES)	BAPUNORERE
					BAPUNORELAU
Pausu Musikalak: Gutxienez 8 segundoko iraupena izan behar duten pausuak dira, dantzako lehen mugimendua hasten denetik zenbatuta (PAUM). <sup>4</sup>			BAPUNOREBES		
			BAPUNPAUM		
	<i>Ez Puntuagarria:</i> Arautegiko Puntuazio Kodeak sailkatzen ez duen eta puntuaziorik esleitzen ez dion elementua (EZPUN). <sup>5</sup>			BAEZPUN	

<sup>1</sup> Jauzi-zailtasun guztiak oinarrizko ezaugarri hau izan behar dute: hegaldian zehaztutako forma; Arautegiko Puntuazio Kodearen 8.1 artikulua, 33. orrialdea; <sup>2</sup> Arautegiko Puntuazio Kodearen 9.1.1 artikulua, 38. orrialdea. <sup>3</sup> Arautegiko Puntuazio Kodearen 10.1.1 artikulua, 44. orrialdea. <sup>4</sup> Pausu guztiak argiak eta ikusgarriak izan behar dira iraupen osoan zehar. Musikaren tempo, erritmo, izaera musikal eta azentuekin bat egin behar dute, eta gutxienez, bi urrats mota, erritmo, norabide edo mailak konbinatu behar dituzte; Arautegiko Puntuazio Kodearen 4.1 artikulua, 25. orrialdea. <sup>5</sup> Elementu teknikoak, estetikoak eta lotura-elementuak, halako moldez non elementu batetik hurrengora pasatzen baita modu logiko eta arinean, beharrezkoak ez diren geldialdirik edo prestatze-mugimendu luzerik gabe; Arautegiko Puntuazio Kodearen 4.2.1 artikulua, 53.orrialdea.

Bigarren irizpideari dagokionez, gimnastak elementu bera jarraian zenbat aldiz egiten zuen aztertzen zuen (Taula 2).

**Taula 2: GimRit behaketa tresnaren 2 Irizpidea eta bere kategoriak.**

<b>Irizpidea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Kodea</b>
Gimnastak elementu bera jarraian egindako aldi kopurua (EKO)	<i>Behin</i> (1)	Gimnastak elementu bera behin egiten du.	EKO1
	<i>Bitan</i> (2)	Gimnastak elementu bera bitan jarraian egiten du	EKO2
	<i>Hiru aldiz</i> (3)	Gimnastak elementu bera hiru aldiz jarraian egiten du	EKO3
	<i>Lau aldiz</i> (4)	Gimnastak elementu bera lau aldiz jarraian egiten du	EKO4
	<i>Bost aldiz</i> (5)	Gimnastak elementu bera bost aldiz jarraian egiten du	EKO5
	<i>Sei aldiz</i> (6)	Gimnastak elementu bera sei aldiz jarraian egiten du	EKO6
	<i>Zazpi aldiz</i> (7)	Gimnastak elementu bera zazpi aldiz jarraian egiten du	EKO7
	<i>Zortzi aldiz</i> (8)	Gimnastak elementu bera zortzi aldiz jarraian egiten du	EKO8
	<i>Bederatzi aldiz</i> (9)	Gimnastak elementu bera bederatzi aldiz jarraian egiten du	EKO9
	<i>Hamar aldiz</i> (10)	Gimnastak elementu bera hamar aldiz jarraian egiten du	EKO10
	<i>Hamar baino Gehiagotan</i> (100)	Gimnastak elementu bera hamar aldiz baino gehiagotan jarraian egiten du.	EKO100

### 2.2.2. *Gimnastak denborarekin duen harremanean oinarritutako irizpideak*

Denborarekin harremana aztertzeko, lehenik eta behin errutinaren iraupena neurtu zen. Arautegiko Puntuazio Kodeak errutinak gutxienez minutu eta laurden, eta gehienez, minutu eta erdiko iraupena izan behar duela zehazten du. Ezarritakoa ez betetzeak, denboraz kanpoko segundo bakoitzeko 0,05 puntuko baliogabetzea suposatzen du (Arautegiko Puntuazio Kodeko 1.4. artikulua). Gimnastak baliogabetzeak saihestu nahi dituzenez, eta denbora agortu ohi duenez, iraupen aukerak minutu eta laurdenetik aurrera zehaztu ziren (Taula 3). Irizpide honek, gimnastak lortutako bukaerako nota denboraren kudeaketarekin erlazionatuta dagoen aztertzeko aukera emango luke.

**Taula 3: GimRit behaketa tresnaren 3 Irizpidea eta bere kategoriak.**

Irizpidea	Kategoria	Deskribapena	Kodea
Errutinaren iraupena (IRAU)	<15	1:15 min baino gutxiago	IRAU<15
	15	1:15 min	IRAU15
	16	1:16 min	IRAU16
	17	1:17 min	IRAU17
	18	1:18 min	IRAU18
	19	1:19 min	IRAU19
	20	1:20 min	IRAU20
	21	1:21 min	IRAU21
	22	1:22 min	IRAU22
	23	1:23 min	IRAU23
	24	1:24 min	IRAU24
	25	1:25 min	IRAU25
	26	1:26 min	IRAU26
	27	1:27 min	IRAU27
	28	1:28 min	IRAU28
	29	1:29 min	IRAU29
30	1:30 min	IRAU30	
>30	1:30 min baino gehiago	IRAU>30	

Errutinaren iraupena zehazteaz gain, errutinaren uneak bereizteak (Taula 4) elementu ezberdinen kokapena aztertzeko erabilgarria izan daiteke. Izan ere, gimnastek estrategia ezberdinak jarrai ditzakete elementuen banaketari dagokionez; hala nola, arreta gutxien deitzen duten elementuak errutinaren hasierako zatian egitea, edo elementu ikusgarrienak edo akatsik gabe egiten dituztenak errutinaren bukaerako azken herenean burutzea.


**Taula 4: GimRit behaketa tresnaren 4 Irizpidea eta bere kategoriak.**

Irizpidea	Kategoria	Deskribapena	Kodea
Errutinaren unea (UNE)	<i>Hasiera</i> (HAS)	Errutinaren lehendabiziko herena (0 - 30").	UNEHAS
	<i>Tartekoa</i> (TAR)	Errutinaren tarteko herena (60" - 90").	UNETAR
	<i>Bukaera</i> (BUK)	Errutinaren azken herena (60" - 90").	UNEBUK

### 2.2.3. Gimnastak espazioarekin duen harremanean oinarritutako irizpideak

*Irizpide kartografiakoa.* Gimnastak elementu gimnastikoa burutzen duen anean tapizean hartzen duen lekua aztertzeko 9 zona desberdindu ziren. Kode ofizialak gimnastak errutina aurrera eramatean 13 x 13 metroko tapizaren barruan burutu behar

duela (Arautegiko Puntuazio Kodearen 3.1. artikulua) eta eremu hau guztia aprobetxatu behar duela zehazten du. Beraz, eremuaren erabilpena aztertzeko, hau da, gimnastak elementuak burutzean praktikagarrian duen posizioa zehazteko, tapizaren izkinak erreferentziatzat hartu ziren, guztira 9 zona desberdinduz (Irudia 1): tapizaren lau izkinak (1, 3, 7 eta 9 Zona), izkina hauen arteko tartea (2, 4, 6 eta 8. Zona) eta erdiko tartea (5 Zona). Beraz, zona bakoitzaren azalera 18,78 metro karratukoa (m<sup>2</sup>) izan zen eta hauek kodifikatzeko epai-mahaiarekiko gertutasuna hartu zen kontuan (Irudia 1).



Irudia 1. Tapizaren banaketa kartografikoa zonaka.

Gimnastak tapizean hartzen duen lekua erregistratzeak Arautegiko Puntuazio Kodeak zehazten duen bezala espazio guztia erabiltzen den edo ez (e.g. gimnasta zona guztietatik pasatzen den), erabilpenaren segida (e.g. gimnastak errutina epaileen mahaitik urrun hasi eta gertuago bukatzen duen) eta elementu gimnastikoen burutzearen kokalekua zein den aztertzeko aukera ematen du. Hau aztertuz gero, gimnastaren errutinaren inguruko informazio interesgarria lor daiteke (e.g.. Arautegiko Puntuazio Kodearen arabera balio handiagoko elementuak edo ikusgarritasun handiagokoak epai-mahaitik gertuago egiten dituen, edota akatsak epai-mahaiarekiko urrun ematen diren).

*Desplazamenduaren orientazio irizpidea.* Elementu gimnastikoaren burutzeak tapizean desplazamendurik suposatzen duen edo ez aztertzeko hiru aukera desberdinu ziren (Taula 5): a) *Desplazamendurik Ez:* gimnastaren gorputzaren bermea tapizarekiko (x, y) leku berean mantentzen da, b) *Desplazamendu Osoa:* gimnastaren gorputzaren

bermea lekuz (x, y) aldatzen da; eta c) *Pausua*: lekualdaketa hanka edo beso bakar baten desplazamenduaren bitartez ematen da. Banaketa honen bitartez, aurreko lanekin alderatuz (Sierra-Palmeiro et al., 2019; Ávila-Carvalho et al., 2011; Ávila-Carvalho et al., 2012; Agopyan, 2014), errutinaren jarraikortasuna aztertzea bilatzen da, eta ez da soilik Arautegiko Puntuazio Kodeak zehazten dituen zailtasunetara mugatzen.

**Taula 5: GimRit behaketa tresnaren 5 Irizpidea eta bere kategoriak.**

<b>Irizpidea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Kodea</b>
Gimnastaren desplazamendua (DES).	<i>Desplazamendurik Ez (EZ)</i>	Gimnastaren gorputzaren bermea leku (x,y) berean mantentzen da.	DESEZ
	<i>Osoa (OSO)</i>	Gimnastaren gorputzaren bermea(k) lekuz (x,y) aldatzen da (dira).	DESOSO
	<i>Pausu (PAU)</i>	Lekualdaketa hanka edo beso bakar baten desplazamenduaren bitartez ematen da.	DESPAU

Desplazamendu osoa egotekotan, honen norabidea aztertzeko zenbait irizpide desberdinu ziren: a) Epaileen mailarekiko norabidea (Taulak 6, 7 eta 8), eta b) tapizarekiko norabidea (Taula 9). Epaileen mailarekiko hiru kategoria ezberdinu ziren: i) Gimnastaren desplazamendu osoa epaileen mahaiarekiko norabide elkarzutean ematen da, ii) Gimnastaren desplazamendu osoa epaileen mahaiarekiko norabide paraleloan ematen da, eta iii) Gimnastaren desplazamendu osoa epaileen mahaiarekiko norabide elkarzutean eta norabide paraleloan ematen da. Hauen barruan, gimnastaren desplazamendua epaileen mahaiarekiko hurbildu edo urruntzen den, eta ezkerrera edo eskuinera desplazatzen den desberdinu zen. Tapiza erreferentziazat hartuz, hiru kategoria banatu ziren: i) Elementua burutzean gimnastaren desplazamendua tapizaren edozein ardatzarekiko paraleloa da, ii) Elementua burutzean gimnastaren desplazamendua ez da tapizaren edozein ardatzarekiko paralelo, eta iii) Elementua burutzean gimnastaren desplazamendua tapizaren edozein ardatzarekiko paralelo zein diagonal da.

**Taula 6: GimRit behaketa tresnaren 6 Irizpidea eta bere kategoriak.**

<b>Irizpidea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Kodea</b>
Gimnastaren Desplazamendu Osoaren (DESOSO) ezaugarriak	<i>Elkarzut</i> (ELKAR)	Gimnastaren desplazamendu osoa epaileen mahaiarekiko norabide elkarzutean ematen da.	DESOSOELKAR
